

TIBET - EKO BERRI PALESTINOTARREN GARRAXIA

Orain dela hilabete batzuk hil zen, bere 101 urteetan, Alexandra David-Neel andrea; jakina denez, Tibet-eko erlijioan eta gorabeheretan txit ikasia. Eta gun hauetan, Tibet-zale emakume frantsesen ilarran bere burua sartuz, Maryse Choisy andreak Tibet-i buruzko hiru artikululu mamitsu eman dizkigu.

Tibet zertu den azalduko dut hitz gutxitan harira aurretik.

Txina-ren eta India-ren artean, Himalaya-k hegaldetik mugaturik, Tibet da munduan dagoen herririk gorena: 3.000/4.000 metro batez beste. Zabalra hedaturaz (mila kilometro luze), burria jendaketa, Tibet teokrazia bat izan da 1959 arte. Hitzuntzaz eta kulturaz ondokoe-tatik desberdina, erlijioak markatu eta ezagutarazi du gehienik. "Lamaismoa" zer da? Bi erlijio-joera-ren ondorioa: budismoa batetik ("mahayana joerakoa), eta tantrismoa bestetik (honen ekarria diru gure artean aisegi zabaldu diren sexo-zirimonien imajinak). Tibet-a oso herri erlijiozalea izan da aspaldian; eta faltetegiz beterik dago (zegocen, hobe, 1959 arte). Lhasa, eta Grezia-ko Athos-Mendia, askotan alderatu izan dira, baita Potala eta Vaticano ere. Esaten denez, eta egia da, Tibet-en ez zen gaur arte gurlia bera ere asmatu; baina... politzia ere ez, eta bilkuntzarik ez bide eskualde hartan ezagutzen.

Tibet delakoa beste mundu bat zaigu, egiazki bestelakoa; eta bestetza hartu gabe ulertzerik ez dago. "Bi gauza azaltzen ditut nik, neure ikasleko — zion Buddhak — Ateakabaren funtsa, eta Ateakabe horretaz begiratzeko bidea". Han eta hemen, eta nun-nahi, Buddha agrian, Buddha gidari, Buddha jaikoa.

Honetaz guziaz neure iritzia xeheki azaltzeko urrunegi eramango ninduke. Funtsen, Buddha izan da, ene ustek eta anitzen ustek, kondairak eman duen pentsatzailerik sakonena; eta Tibet-a budismoaren gordailu gisa agertzen da.

Tibet-eko teokraziari buruz iritzi bat ematea, hortaz, arriskuko gauza da. Alde batetik, harropuzkerian eta itsukeria osoan, eta geure balore-multzoa zalantzarik gabeko neurritzat hartuz, dena neurkailu horretan bidez begiraten dugulako: gure zibilizazioa bakarra eta paregabea delakoa, zozkeriatzat salatuko dugu ziplo Tibet-eko mundua. Beste alde batetik, budismoa aitzekia ed oidea-superstruktura, Tibet-en teokrazia itxusi bat zegoela somaturik, nekez proposa daiteke hori, eta ez gutxiagorik ere, inorentzako eruduzat. Eta Buddhak, ihugarrenekorik, piztuko balitz, nekez onhartuko lituzke Lhasa-ko giroa eta sineskeria anitz.

Ez dut beraz hitzik ere esango Lhasa-ko gobernu zaharraren alde. Eginak aipatuko ditut soilki.

1959-an txinatarrak Tibet-en sartu ziren indarka (eta hau ez da lehenengo aldiz gertatu!), eta okupaldia hasi zuten. Noski, okupaldia hori "liberazio" gisa presentatu zaio herriari.

Zer egin zuten Tibet-errek? Alde batetik budismotik jasoa duten gerrarik ez dela, bestetik txinatarran

indar-nagusitasuna dela, 90.000 tibetarrak Hegoalderako bidea hartu zuten, eta Himalaya-ko mendarte-etatik India-ra azaldu ziren babes bila. Gauza bera egin zuten frañte askok (zortzi bat mila gutxienez). Hamaika urte honetan des-herriturik, gehienek ez bide dute oraindik beren bizi-meidea antolatu (%-eko 40 bat bizi bide dira birregokiturik), eta munduan zehar sakabanatu dira ez gutxi: 500 tibetar Sulzan, esate baterako.

Oso gogoangarria zaigu hango egoera, ene ustez, Maryse Choisy-k eman dituen berriak iturrakoak dira, hiru "Lama" nagusirekin mintzatu bait da India-n (tibetar bi hiruen artean: Lhasa-ko Dalai-Lama, lamaisten Aita Santua; eta Sakya-Lama, aspaldiokoa). Zer diote Tibet-eko budista buruzagi horiek?

Lau puntu nagusitara bil daitezke haien esanak, nik uste:

1. Txinatarran "liberazioa", militar okupazio huts iruditzen zaie tibetarrak: "Tibetarra naiz. Neure herria maite dut. Tibet-a libro izana da. Nortasun berezia ematen diote bere arrazak, bere geografia, bere kondairak, bere kulturak, bere literaturak eta bere filosofiak. Orain atzeritarrak armada batek okupatu du", dio Dalai-Lamak.

2. Txinatarrak lan haundiak egin dituzte zenbait alderditan: "Errepide eta eskola berriak egin dituzte, eta nekazaritzaren ugaltasuna ondu egin dute"; nahiz, dio Dalai-Lamak, emendio hori "txinatarrak izan".

3. Txinatarrak kultura-geozidiodi bat egiten ari dira. Tibet-eko kondaira debekatu, eta haren orde txinatarran aldeko materialista bat azaltzen da ikasgutan. Tibet-eko hizkuntza, tibet-era, baztertua izan da osoki; "eskoletan ez da ezer erakusten (xineraiz baizik)", dio Dalai Lamak; eta bide beretik Ladakh-eko Katxemiratar Lamak: "ez ditut gorroto txinatarrak, ez gizon gisa eta ez herri gisa. Baina gure kultura ez ezatzen eta funditzen salatzaren dira". Serorategietako emakumeak kanpora, eta txinatarrak ez kont-arazten dira; liburu zaharrak hondatzen eta erretzen; Buddharren elizak eta kaperak ankar gora botatzen.


4. Tibet-eko komunistek, nahiz politikaz lamaismoaren etsai amorratuak izan, okupatzaileen kontra hartu dituzte iskiluak: "Tibet-en gelditu diren tibetarrak, baita komunistek berek ere, erresistentzia armatua eraiki dute, eta gure askatasun-burruka aurrera daramate... Gure gudaririk gogorrenak, Txina-n eskolatu diren tibetarrak dira, hain zuzen. Marxista izanagatik ere, txinatarran okupazioa salatzen eta burrukatzen dute".

Dalai-Lamak ez du armatan altxatzeko bideinkatu nahi, hori budismoaren kontra doalako.

Baina hitz hauetara bildu du bere nahia: "Kakoa hauxe da: Tibet-en askatasuna. Tibetarrik gehienek hori nahi dute".

Ez genekien hori guziaz, Choisy andre hori; anitz esker zure artikululu bikainengatik.

LAKRESORO



Egazkin lapurtuak Zarka-ko lurretan

Garraxia duzu egokera gaiztotik irteazearren eman oi dan azken delhadarra. «Rogers» izeneko egitarauak ekarri dituan ondorenak, batez ere Palestinako Herria eraikitzeko burrukan dabilazan arabatarrentzat, ez dira nolana hikoak izan. Fedayin-ek argi ikusi dute bere anaien dollorkeria eta ez dute etsi beren burruka zeruataraino eramane arte. Hala ere burrukaren gora egite horrek fruituak ez dituala ekarri dirudi.

ANAIEN DOILORKERIA

Palestinoek arabe laterriekiko gordetzen duten gorrotoaren berririk ez dago Euskal-Herrian. Israel. Palestinotarran etsai handiena ba da ere, inguruko rejimenen zurikerik burruqalari hauen bihotzak sarri mindu izan ditu. Noski, berak arabe-nazio handiaren zati bezela irau nahi dute eta era berean nazio handi burruka girotik ez alde-giteko ahal duten guziaz egingo dute nahiz eta amerikar eta sobietarrek iritzi hortakoak ez izan. Baina nola ulertuko dute Nasser, arabetarren buru agertu nahi duna? Izan ere. Israel baztertzen eta palestinoen burruka jarrai zedin sua ematen ari zana, egun batetik bestera Israel onhartzeko prest agertu da. Palestinotarrak Israel-go laterri desegiterra bultzatu dituztenek, egin dira haien gaurko joera gaizki dijoala aitortzeko. ONU-ko Batzarrean Siria-ko iraultzaileak ere palestinoen ekintzak gaitzetsi dituzte. Hala ere, ahien ahotik entzun izan dugu arabearn arteko «Guevara-k» Fedayen-ek zirala.

Gehiago oraindik: Ejipto barneko

egoera diktatoriala bera ere Israel-en aurkako gudan eta Palestinoek behar duten laguntzan oinarriturik ez ote dagon, galde ditek.

Gauzak hala baldin ba dira, azken egun hauetako gertaerak, egazkiaren lapurketa eta Hussein-en gudari mutilen aurkako burrukak uler ditezke... Hain ohiartuzan arrigarria zabaldu duten ekintzen elburu taktikoek zirala dirudi. Rogers egitaraua zuzentzerik eta Herri nagusiek ez dezatela pentsa errega dani palestinoak desegiterra. Sordal-deko arazoak eragozpiderik gabe zuzentzeko adierazi nahi izan dute. Israel-en aurkako kolpe handi bat baiño errexago iruditu, Palestinoen burruka giroa indartzeko, egazkiaren lapurketa. Sakonkiago begiratu, arabitarren biziak, aberatsenak bezain baliotsuak dirala agertu nahi izan dutela dirudi eta gainera esan ditek ekintza han burrukalarien talde txikien arteko batasuna lortzeko bide bat izan dala. Baiña helburu taktiko hoiaren atzetik ibilli diranek zer lortu duten ikusi behar da.

ASMO HANDIEN FRUITU TXIKIAK

Burrukalari taldeko batek egin ditunak, gauza ikusgarriak dira. Baina ekintza arrigari hoiend alderdi txarrak oso nabarmen agertu dira. Batetik ONU-ko laterri guziaz amar minutu barru, bat egin dira palestinoen ekintzak gaitzesteko. Besteetik, marxista eta iriakal agertzen ziran erreboliuziari erakundeak, Israel-er ez diran judatarrentzat gordetzen duten gorrotoa agertu dute,

beste gizoneri ez bezelako tratamendua eman bait ditek.

Nola sinets, aurrerantzean erreboliuziariak eratuak duten herrian, Palestina-ko judatarrentzat lekua izango dala dioteneri? Judatar guziaz israeldar bezela hartzea, beren zabalkundeetan erabili dituzten dotriaren aurka bait dijoa. Azkenik ere esan behar da Sordalde inguru hortako arazoarekin zer ikusi handirik etzuten asko eta asko palestinoen aurka jarri dirala zeren egazkiaren lapurketa jendetasunaren aurkako ekintza bezela hartu dute.

Palestinotarrak bakardade handiaren aurkitzen dira eta beren garxariaren ohiartzuna tamalgarria bihurtu zaie. Ezin dute ezer itxaro beren arabitar anaiek egin dezaketen iraultzagandik; beraz, berak dira iraultzaren jabe egin behar dute-nak. Hortarako, gobernu bat osa, estadu bat eratu eta lurralde bat bereganatu behar dute iterea bakarra bezela. Gaza, Zisjordania edo Jordania egokiak izan ditezke pauso hoiak emateko. Ondoren, berak erabakiko dute Israel-en aurka burrukan jarrai behar duten ala ez. Jokiera horrek obeto agertuko die nazio-artearen eta arabearn artean ibiltzeko beharko duten zentza.

Gogorri romantikoak edo bakarkakoak, gogorriak berak baiño prolema handiagoak ekarri ditzakete. Reboliuzioak, gogorriaren aurkako ekintzak inguruen atzerketa eta politikoi ikuspen konkretu batzuen bidez neurtu ditezkenen bakarrak, egingo du aurrera.

D. IZA

ERAMAN - EKARRI'rako
AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO
Iparragirre, 8 - DONOSTIA

MUEBLES
URRETAVIZCAYA
1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK
POSTAS, 46
GAZTEIZ (Vitoria)

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIETATIK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkifia: 12 0 65
DONOSTIA

MOTOR ELEKTRIKOEN
KONPONKETA

GORDAILUAK
Bar Deportivo aurrean
Nueva, 3 Urrut: 58357
ANDOAIN

ASMADE OPARIAK
JATONTZI TA MAI - TRESNAK
Victor Pradera, 2
Urrutizkifia: 25700
DONOSTIA

ERLOJU TA BITXITEGIA

Vergara, 11 - Urrut. 17751 - Etzekoa: 22700 - DONOSTIA

ESTABLECIMIENTOS ayestaran DONOSTIA	FERRETERIA BURNI - SALGAIK Urbietta, 25	ELECTRODOMESTICOS ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK Urbietta, 27 - Isabel II, 2	RAILITE LEGEZKO ZABALTXAILLEA Aldaconeaa, 4	Urrutizkiñak: 4300 ta 26787
--	---	--	--	--------------------------------